

Arantzetako Ama Birjinaren Beila – Ainhoa 2018. Maiatzaren 21an

Jakobe 3, 13-18 – Luk 1, 39-56

1-Arantzeta-ko kapera huntarat jin gira. Bilakatu gira beilari. Abraham, fedean gure aita, gure burraso aintzindaria bezala, hura bezala ihardetsi dugu, gure barnetik jin dei ixil bati “*Utzazu zure lurra, zure ahaideak, zure aitaren etxea eta zoazi nik erakutsiko dauzutan lurralderat.*” Goiz huntan utzi ditugu gure lanak, utzi bertze egunetako egun guziko bizi-moduak, hartu dugu bidea, bertze bizitze manera bati lotzeko. Aietasuna utzirik, beheretik gora jin gira, memento batzutan hats-angatua, izerdia merke, hel-buru huntaraino Arantzetako beilari, mendi kasko huntaraino : Arantzetako kapera huntaraino. Bide guzian, Ebanjelioa ginuen gure gidari, Andredena Maria gure bide-lagun, gure biziaren helburua gogoetan, familiako edo herriko auzo batzuen gogoetak eta arrangurak ere gure otoitzetan, laborantzako lanak eta ere landatu gauzen geroa zer izanen den... Oroz gainetik gure biziaren helburua : Norat goatzi mundu nahasi huntan. Gauza bati pentzazen dut : “Petit Prince” delakoak, Antoine de St Exupery idatzi duen liburuan, ibiltzen du solas bat azeriarekin. Azeriak dio “*Arrosa landarearekin galtzen dukan denborak dau, hiretako, arrosa premiatsu bilakarazten*” Horriek hola, gu bakotxaren zat ere, Jainkoaren-zat galtzen dugun denborak dauku Jainkoa premiatsu bilakarazten.

2-« *Gure Jainkoa gizon egin da gu Jaunartzeko, gu bere Jainkotasunarat egiteko*” Askotan, idurikatzen zaiku badela izpirituzko bizia eta berzalde egun guzitako bizia. Egunduzko bizia : familia, lana, herriko harremanak, jostatzeko mementuak alde batetik, eta bertzetik otoitza, edo frailen edo apezten otoitz egiteko manera. Ez, ez ditake izan bi bizitze moda. Mendekoste biharamun huntan, behar dugu Izpiritu Saindua hartu gidari gisa. Bizi guzian bere xendre guziekin, egunduzko kezka haztun guziekin, bizi hortan nahi du izan Izpiritu Sainduak gure bide-lagun. Jesus baitan, Izpiritu Sainduak, nahi ukan du barneratu eguneko eta egunetako bizi guzia. Ikus nola Jesusek ereman duen bere bizia Nazareth herrian hogoita hamar urtez, ixiltasunean. Judu gazte bat bezala, maiasturu lanean, lan hori ikasi du, biziko urrats xoiletan. Haur eta gizon gazte bizi moldea ikasi behartu izan zaio. Andredena Mariak bizi berbera ereman du. Jainkoak josi duena ez du gizonak bereixi behar. Beila batek, zatitu gabe, bi biziak josten ditu elgarrekin. Madeleine Delbr el, fitexko saindu izanen den emazte jenden laguntzailea (hori zuen bere lanbidea) erraiten zuen : “*izpirituzko bizia da egunduzko bizia barnetik bizitzen den bizia.*”

3- Egungo beila huntan, Ainhoa herritik jina gira bainan ere, alderdi guzietarik. Denak arras atxikiak gira *Arantzeta-ko* toki huni. Hemen pasatzen dira bertzalde ere hainbeste beilari... Toki huntan, lehenbizi, agertzen zauku kurutzearen helburua, galbarioa, hamalau estazionen puntan... ortzirale egunaren seinale, gure salbamenduaren seinale. Bestalde, gure bistari emanak, kanpoko hilerrak, ehorzketako eskualdun kurutze eder batzuekin, murmurikatzen dute ixixila beharritat nun dagon gure bizi huntako helburua... murmurikatzen gure bizia egiazko beila bat dela. Bertzalde oraino, *Arantzetako* kapera, lekuko gisa, hemen Andredena Maria agertu zaio artzain gazte bati elorri-xuri sasi batean. Hemen gira, goratasunean, *Atsulai* mendiaren sahetsean, hemendik baita ikuspegi xarmegarria, hantxe nunbait *Xareta* zirka, *Nivelle* ibaia, *Donibane Lohitzune*, *Atlantik* itsasoa. Horietan guzitan, iduri zait, ikusten ahal dugula, berpizteko seinalea, eguneroko berpizteko seinalea. Hemen gira, toki guzitarik jinak, diferentak adinez, diferentak fedearen bizitzeko manieraz, ideiaz, gogoetaz... beila hunek biziarazten dauku anaitasun entsegu bat. Gure bizian baditugu borroka mementuak, estabada mementuak. Izan dira azkar gure Eskual-Herrian. Izan ditela ere konbertitzeko mementuak. Bertzea nitaz diferenta, harek nauku handitzen ahal. Berzearen intzutea, harekin berdin solas zombait ukaitea, hortan zauku agertzen gure bizian badirela gabeziak, pobretasunak... Jainkoak dauku galdetzen *zubiak* izaitea, elgarren artean, han baigira desberdinak : hortarako gomendatzen dautzuet irakurtzea artikulu bat guziz suhara aste huntako “*Herria*” euskal astekarian(n°3450) agertua, Jerusalemeko mendi gainean pentsatua, izendatua “*Zubiak*”. Izan gaiten zubi eraikitzaile gure inguruan. Hortarako baitezpadako bidea da *konbertitzea*

mendi gain hau utziko dugularik, ez arrunt gure buruari uko egitea, bainan onartzea ez nizala bakar bakarra, bertzeen beharra ere badutala, Jesusek nahi duen mundu baten egiteko. Alderdi hortarat doa Jondoni Jakobon mezua, entzun duguna lehenbiziko irakurtgaiak [...] **18** *Bakegileek bakean ereiten dute eta fruitutzat zuzentasuna biltzen.*” Eskual-Herriak, hartua du bakearen bidea eta badoa aro berri batera buruz. Bide hortan bada oraino ainitz egiteko. Lur berri bat moldatzerat deituak, **bakegileak** izan gaiten denak. “*C’est dans la dynamique de la rencontre et dans la paix qu’est semée la justice qui donne son fruit aux artisans de la paix.*” Fruit de ce pèlerinage : demandons au Seigneur de pouvoir devenir comme Marie des hommes et des femmes du Magnificat.

*Des hommes et des femmes qui donnent du temps pour Dieu, pour les autres « *C’est le temps que tu as perdu pour ta rose qui fait ta rose si importante.* » « *C’est le temps que tu as perdu pour Dieu et pour les autres qui va faire que Dieu et les autres soient importants pour toi.* »

*Madeleine Delbrêl, une assistante sociale bientôt canonisée, disait : « *La vie spirituelle est une vie humaine vécue de l’intérieur.* » Ne séparons pas dans notre vie ce que Dieu a uni dans la vie de Jésus.

**Des hommes et des femmes, comme Marie, qui écoutent du plus profond de leur cœur Dieu et les autres et qui posent sur eux un regard de foi, d’amour et de bienveillance... Amen.*

Jean-Baptiste MOUNHO apezka.

Homélie : Rupture - Intériorité – Fraternité.

1. En effectuant cette montée vers la chapelle de l’Aubépine, le pèlerin que nous avons été a répondu au même appel intérieur qui fut adressé à Abraham : « *Quitte ton pays, ta parenté et la maison de ton père pour le pays que je t’indiquerai* » (Genèse » 12, 1). Ce matin nous avons rompu avec le train-train de la vie quotidienne pour apprendre à vivre autrement. Nous avons laissé un confort matériel pour une marche bienfaisante vers un but : la chapelle de Notre Dame de l’Aubépine. Tout au long de cette montée, l’Evangile est devenu l’horizon qui guide le pèlerin dans sa marche terrestre. Cette montée aide à retrouver le sens de sa vie qui est en Dieu. Lorsque le petit prince d’A. de St Exupéry vient sur la terre et rencontre le renard, le renard lui dit « *C’est le temps que tu as perdu pour ta rose qui fait ta rose si importante.* » « *C’est le temps que tu as perdu pour Dieu qui va faire que Dieu est important pour toi.* »

2. « *Le Christ s’est fait ce que nous sommes pour que nous devenions ce qu’Il est.* » On pense souvent que la vie spirituelle est au-delà de ce qui fait notre vie quotidienne : la famille, le travail, les loisirs, la vie sociale, etc. On la réduit à la prière et à la contemplation. Nous n’avons pas deux vies. En toutes choses nous avons à nous laisser guider par l’Esprit de Dieu. Toute notre vie, même dans ses aspects les plus matériels, doit être transformée par l’Esprit. Notre vie spirituelle c’est notre vie la plus ordinaire transfigurée par l’Esprit. En Jésus, l’Esprit de Dieu a pénétré la totalité d’une vie humaine et, pendant trente ans, Jésus a mené la vie cachée à Nazareth, accomplissant les gestes quotidiens d’un jeune juif, fils de charpentier. La Vierge Marie, « *sur qui est venu l’Esprit-Saint et que le Très-Haut a prise sous son ombre* » est la femme de notre race qui nous précède dans notre pèlerinage de foi. Dans le Christ, l’Esprit de Dieu et l’homme sont définitivement liés. Il ne faut pas séparer ce que Dieu a uni. C’est dans cet esprit que le pèlerinage refuse de compartimenter la vie. Madeleine Delbrêl disait : « *La vie spirituelle est une vie humaine vécue de l’intérieur.* »

3. Dans ce pèlerinage, nous venons du village d’Ainhoa, de plusieurs autres villages des alentours même au-delà de la frontière. Ensemble, nous sommes attachés à ce lieu où passent tant d’autres pèlerins, un lieu où nous pouvons contempler le calvaire au terme d’un chemin jalonné de 14 croix, signe du mystère du vendredi saint et de ce qu’il en a coûté à Dieu de nous sauver. Un cimetière paysager offre un très bel exemple de l’art funéraire basque qui nous met en contact avec le sens d’une vie humaine qui est un vrai pèlerinage. Cette chapelle, dédiée à la Sainte Vierge apparue dans les buissons d’Aubépine à un jeune berger, est édifiée à 389 mètres d’altitude, sur le flanc de la montagne **Atsulai**. C’est l’un des plus

beaux **panoramas** du Labourd sur le cirque de **Xareta** et la vallée de la Nivelle jusqu'à Saint-Jean de Luz et la côte Atlantique. J'y vois le signe de la résurrection, d'une résurrection à vivre au quotidien... De sensibilités religieuses, de convictions de foi et d'âges très différents, ce pèlerinage nous fait vivre, en Eglise, une expérience de fraternité. Notre vie n'est pas absente de heurts, de conflits et d'indifférence... Nous avons besoin de conversion. L'autre différent de moi, et que je n'ai pas choisi, m'oblige à sortir de mon univers ; il me remet en cause dans ma manière d'être en relation. Il me révèle mes manques et cette part de moi-même qui se refuse à aimer et à se perdre pour l'autre quel qu'il soit. Le Seigneur nous invite à être des ponts dans nos communautés. Je vous invite à lire sur le journal **Herria** (n°3450) un bel article en basque conçu sur la montagne de Jérusalem, dans la pleine tourmente de cette région. Soyons des constructeurs de ponts et non de murs entre les hommes.

Ce pèlerinage à Notre Dame de l'Aubépine peut nous aider à vivre ce que l'apôtre saint Jacques nous dit dans la 1^{ère} lecture : ... « *Si vous avez dans le cœur la jalousie amère et l'esprit de rivalité, ne vous en vantez pas... Ils mènent au désordre et à toutes sortes d'actions malfaisantes. [...] C'est dans la paix qu'est semée la justice, qui donne son fruit aux artisans de la paix.* » Le Pays Basque a pris le chemin de la paix. Des artisans de la paix ont levé un bel espoir. Il y aura encore beaucoup à faire. Nous aussi entrons dans la dynamique de la rencontre et du pardon. Soyons des constructeurs de ponts entre nous.

Au cœur de ce pèlerinage, demandons au Seigneur de pouvoir devenir des hommes et des femmes du Magnificat, c'est-à-dire des hommes et des femmes qui écoutent du plus profond de leur cœur Dieu et les autres, qui posent sur eux un regard de foi, d'amour et de bienveillance... à l'image de la Vierge Marie. **Amen.**
